

Nazionalismoaren suspertzeari helduta

Hamarkada ia oso batean aurrenekoz, Korsikako bi futbol talde ari dira lehiatzen Frantziako lehenengo mailan: Ajaccio eta Bastia. Nortasun berezia dute, diskriminazio sentipen, gerra zikin eta kontu-garbitzeek idatzitako historiaren lekuko.

| JON TORNER ZABALA |



CDN SPORTS

2012KO URRIAREN 16AN Antoine Sollacaro abokatu eta korsikar nazionalista beteranoa tirokatu zuten Ajaccio inguruko gasolindegian. 1998an Claude Erignac prefeta hil izanaz akusatuta biziarteko kartzela-zigorra ezarri zioten

Yvan Colonna militante independentistaren abokatua izan zen Sollacaro. Bertsio ofizialen arabera, baina, haren hilketak ez du zerikusirik horrekin. Hedabideek zabaldu zituzten datu hotzen artean, hau: “2008tik 101 hilketa

izan dira 300.000 biztanleko uhartean. Siziliakoa baino larriagoa da Korsikak bizi duen egoera”. Eta erantzunik gabeko galdera bat airean: “Nork hil zuen Sollacaro?”. Nork hil zuen iazko azaroan Jacques Nacer, Korsika hegoaldeko

Merkataritza Ganberako presidentea eta lider independentista ezaguna? Nork hil du apirilaren 25ean Jean-Luc Chiappini, Korsikako Natur Parkeko presidentea? Herrialdea zeharkatzen duen GR20 mendi ibilbidearen diseinatzailea izan zen Chiappini. Ezker eskuin, uharteko lurren %40 babesten du legeak, negozio-gizon espekulatuak desio dituzten kostaldeko zenbait gune tartean. Izan dezake Chiappiniren hilketak zerikusirik horrekin? Baliteke, baina poliziak erantzun zehatzik ez du eman oraindik. Hamar hilketatik zazpi argitu gabe geratzen dira Korsikan.

Sollacaro akabatu zuten 2012ko asteburu horretan, Ligue 1 mailan 2005etik lehenengoz, elkarren artean jokatu zuten Ajacciok eta Bastiak, tradizionalki mugimendu nazionalistetatik hurbil egon direnak, herrialdeko gainerako futbol taldeak bezala. Derbia hasi aurretik bi afizioek Dio vi Salvi Regina korsikar ereserkia abestu zuten hildako abokatuaren omenez. Futbol partida hori du abiapuntutzat Aitor Lagunas kazetariak *Panenka* aldizkariaren 17. zenbakian plazaratutako *La batalla de Córcega* (Korsikako gudua) erreportajeak.

Tragediak batuta

1992ko maiatzaren 5ean, Bastia eta Marseillako Olympique taldeen arteko Kopako finalerdia hasi baino lehen, Furianiko estadioko harmaila gehigarriak erori eta 18 lagun hil ziren. “Hemen orori buruz hitz egin daiteke: independentziaz, mafiez... baina Furianin gertatutakoak ez; gurea herrialde txikia da eta guztiok ezagutzen dugu han zegoen norbait”, dio Thomas Andrei kazetariak.


François Mitterrandek bere garaian eta duela gutxi François Hollande frantziar presidentek hitz eman zuten Gobernuak dolua errespetatu eta ez dela futbol partida gehiagorik jokatu maiatzaren 5ean. Urratsik ez du eman, ordea. “Data hura oraindik sakratua ez izatea errespetu falta handia da”, kexu da Jean-Paul Cappuri, Furianin zegoen *Corse Matin* egunkariko kazetaria: “Badirudi soilik korsika-

Korsikera, desagertzeko arriskuan

Kanpoko jokalaria Korsikako talderen batera heltzean, bertako historiari buruzko eta hizkuntza klaseak jasotzen dituzte. 2010eko datuen arabera, 302.000 biztanleetatik 165.000 lagunek ulertzen dute korsikar hizkuntza, baina %20ak besterik ez du erabiltzen. Kopurua beherantz doa, gainera, eta UNESCOk desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzen artean sailkatu du. Apirilaren 24an eta 25ean koofizialtasunari buruzko eztabaida eta bozketa ziren egitekoak irlako Lurralde Asanbladan, baina Jean-Luc Chiappiniren hilketa medio, hilabete atzeratu dute sesioa. *Corse Matin* agerkariak argitaratu duen inkestaren arabera, herritarren %90 legoke koofizialtasunaren alde.

rrei dagokien drama dela, baina Frantziako futbolak sekula jasan duen tragediarik handiena da. ‘Gera zaitezte zuen doluarekin, zuen oroitzapenekin, eta ez zaitezte irilatik atera’ esango baligute bezala da”.

1970eko eta 80ko hamarkadetan “lurraren kriminalen” aurkako eraso ugari burutu zuen Korsikako Askapen Nazionalerako Fronteak (FLNC), 1990ean bitan zatitu zen arte: Canal Historique batetik eta Canal Habituel bestetik. Elkarren arteko kontu-garbitzeek hamabi hildako eragin zituzten eta mugimendu independentista izugarri ahuldu zen. Furianikoaren osteko elkartasun uholdeak zatiketa horren zauriak sendatzen lagundu zuen, baina injustizia eta diskriminazio sentipenak bizi-bizi dirau uhartean. 1972an Bastiak Kopako finala galdu zuen Marseillako Olympique-ren aurka. Garaikurra ematean irabazleen kapitainari zuzendu zitzaion Georges Pampidou presidentea: “Kopa hau frantziar lurretan geratzeak poztu egiten nau”. Korsikarrek ez dute ahaztu.



1990eko hamarkadan, askapen mugimenduan zatiketa eman zenean, eta ziurrenik horren ondorioz, Korsikako futbol taldeek txakal-aldi luzea sufritu zuten, 2009an Bastia amateur mailara jaistear egon zen arte. Bederatzi bazkidek –iturgin bat, mekanikari bat eta elektrizista bat zeuden haien artean– taldea erosi zuten, eta ordutik elkarren artean kudeatzen dute.

Garai ankerrenak gaudituta, suspertzen ari da nazionalismo korsikarra. Irlako ekonomia turismoan soilik oinarritzerik nahi ez duen mugimendu independentistak igoeira handia izan zuen 2010eko eskualde hauteskunderetan, nazionalismoaren adar desberdinek %35eko babesba jaso zutenean. Garai bertsuan hasi zen irlako futbol taldeen suspertzea eta, era berean, selekzioaren berpiztea.

Korsikako hamaika jokalarik jokatu zuten azken derbian, Sollacaro abokatuaren omenezko isilunarekin hasi zen hartan. Alain Orsoni lider nazionalista ohi eta Ajaccioko gaur egungo presidentek tristoraz oroitzen du bere adiskidearen heriotza.

Alain Orsoni / Ajaccio taldeko presidentea
**«Hil nahi banaute, erraz daukate,
 egunero ordu berean ateratzen naiz etxetik»**



CORSICA CONNECTION

ALAIN ORSONI eskuin muturreko militantea izan zen 1970eko hamarkadan, “neskak txunditze-ko”, Joachin Barbier eta Romain Canutti *So Foot* aldizkariko kazetari eta *Panenka*ko kolaboratzaileei azaldu dien moduan. Ekintzaile independentista izan zen gero, eta 1990eko hamarkadan Nikaraguara egin zuen ihes. Duela bost denboraldi hartu zuen Ajaccio taldeko presidente kargua. *Panenka*ko plazaratutako elkarrizketako pasarte batzuk euskaratuta jaso ditugu.

Kanpotik begiratuta, ez dago ulertzerik 1980ko hamarkadaren amaieran korsikar nazionalismoaren barruan gertatu zen gerra zibila. 1989an Korsikako boterea hartzeaz zen nazionalismoa. Orduan, Frantziak erabaki zuen ezkutuan mugimendu separatistak manipulatzea, barne enfrontamenduak pizteko. Korsikara heltzean polizia-komisario batek hauxe esan zuen: “Nazionalismoa gangsterizatu egin beharra dago”. Nik diodana zera da: Nola izango dugu geure buruak gobernatzea helburu, elkar hiltzen ari bagara?

Harrigarria bada ere, ez dirudi FLNC futbolaz gehiegi baliatu zenik.

Aurkakoa. Hain justu mugimendu hura apurtzean (1990ean) hasi ginen elkarteen sarera hurbiltzeko ahaleginetan, besteren artean futbolera. Hala hasi nintzen kolaboratzen Ajaccioko lehengo presidentearekin, Michel Morettirekin.

“Nire helburua da Errealaren antzeko taldea osatzea, nortasun indartsu eta familiaritate handikoa”

Presidente kargua hartu zenuenetik zure kolaboratzaile ugari erail dituzte. Ez zara sikarioen beldur?

Futbol taldearen buru naiz eta erantzukizuna onartzen dut. Baina zer egin behar dut nire iraganari dagokionez? Ezkutatu? Ez, normal bizitzea erabaki dut. Inork aspaldiko zorrak kitatu nahi izanez gero, erraz izango luke. Egunero ordu berean ateratzen naiz etxetik eta kale beretik heltzen naiz futbol zelaira.

Korsikako futbola mitoak dioen bezain borrokalaria al da?

Egia da harmailetan pasioz bizi dela, baina Ajaccion sekula ez da itilurik izan. Zaila da irlako taldeen aurka jokatzeko, jokalaria eta zaleak izugarri konprometiturik daudelako. Ez gara desberdinak, baina desberdin ikusten gaituzte. Horretaz balia gaituzke, gure kultura eta identitatean oinarrituta. Jokalariak Korsikaren eta haren baloreen defentsa euren egiten badute, ahuldadei aurre egiteko kemena emango die.

Nire helburua da Errealaren antzeko taldea osatzea, nortasun indartsu eta familiaritate handikoa. Antzekotasun ugari dago bi taldeen artean, haiek hobeak diren arren.

Irlara iristean, jokalaria batek nora heldu den ikasi behar du...

Bihotzetik hitz egin eta arauetatik kanpo dagoen taldea garelako azaltzen diet, aurrekonturik txikienetakoa eta, agian, presidente arraroa duena. Beste taldeetakoak enpresariak dira, industria jabeak... Baina ni iraultzailea naiz. Borroka egin nuen nire irlako hondartzak hormigoizko pareta bilakatu ez zitezen, Kosta Urdinean gertatutakoa errepika ez zedin. Kartzelan sartu ninduten horregatik. Ez naiz lotsatzen, eta ez dut barkamenik eskatuko.

Ba al du zentzurik Korsikako selekzioak?

Korsika estaturik gabeko nazioa da, Euskadi bezala. Ez dakit zergatik den arraroa selekzio propioa osatu nahi izatea.

argia.com Slump dokto-
rearen zainturatua blo-
gean elkarrizketa osoa
duzue irakurgai. Hainbat
esteka ere bildu ditugu.

